

Galdakao_{ko} Haurren Kontseilua

Kontaktua/Contacto:
uamezaga@galdakao.net




Nork osatzen du?

Galdakaon bizi diren eta bertako ikastetxeetan ikasten duten **4. eta 5. mailako 25 ume** osatzen dute Kontseilua. Taldekideak ez dira udalerriko haurren ordezkari, parte-hartzen duten norbanakoak baizik. Hala ere, Kontseilukideek zubi-lana egiten dute beraien klasekideekin, informazioa helaraziz, proposamenak jasoz eta eztabaidak planteatuz.



Haur bakoitzak **2 ikasturtetan zehar** parte-hartzen du proiektuan, eta **urtero talde erdia berritzen da LH4-ko** ikasle berriak integratuz. Osaeran aniztasun-parametroak aintzat hartzen dira.

Zein da bere ekosistema?




Zer da?

Haurren Kontseilua Galdakaoko Udalak sustatutako proiektua da, herriko haurren eta Udalaren arteko elkarlana bultzatu eta gizarte kohesioa indartu nahi dituen. Bere oinarriak hurrengoak dira:




Eginez ikastea

Txikitatik herriko gaien inguruan hausnartzuz, iritziak emanez eta proposamenak eginez, esperientzia aberasgarri eta esanguratsuak sortzeko espazioa da.



Elkar ulertzea

Egunerokoa errealtate anitzak bizi dituzten umeen artean esperientziak eta ikuspegiak partekatzeko espazioa da, empatia lantzeko eta besteengandik ikasteko.



Zubiak eraikitzea

Udalaren eta umeen artean elkarrekintza espazioak da, Udal politiketan haurren ikuspegia eta proposamenak txertatzea ahalbidetzen duena eta, aldi berean, haurrei udalaren funtzionamendua ezagutzera ematen diena.

Nola funtzionatzen du?

- Proiektua ikasturtean zehar garatzen da, iraila eta ekaina bitartean. Hilero lan-saio presentzialak egiten dira, 2 ordu ingurukoak, goizez, eskola-ordutegian.
- Saioak eskolatik kanpo gertatzen dira, auzo ezberdinetako ekipamendu publikoetan. Haurrak eskoletan jasotzen dira autobusez bilkura lekura eramateko, eta bukatzean, autobusean bueltatzen dira eskolara. Saioetan, umeen intereseko gaiak zein Udaletik proposatutakoak lantzen dira, auzo ezberdinen ikuspegia eta errealtatea txertatuz.
- Euskara da Kontseiluaren komunikazio-hizkuntza, eta euskaraz ondo moldatzen ez diren haurren parte-hartzea errazteko bideak lantzen dira.
- Hilero saio presentzialez gain, **erabaki.galdakao.eus** udal plataforman bere espazioa du proiektuak. Geruza digitala proiektua zabaltzeko eta herriarekin konektatzeko baliatzen dugu: ume zein helduen iritziak jasotzeko, jardueraren jarraipena egiteko, edo herriko beste eragileekin konektatu eta elkarlanean aritzeko.

Nola harremantzen da Udaletxearekin?

Udaletxeak taldean egindako lana eta proposamenak aintzat hartzeko eta horiei erantzun politiko eta teknikoa emateko konpromezua dauka.

Nola harremantzen da ikastetxeekin?

Ikastetxeekin koordinazioan lan egiten da, eta taldearen jardueraren inguruko informazioa helarazten zaie uneoro.

Nola harremantzen da familiekin?

Guraso/tutoreei proiektuari eta haren funtzionamenduari buruzko informazioa helarazten zaie ikasturte hasieran, bereziki LH4-ko seme-alabak dituztenei. Kontseilukideen guraso/tutoreekin harrera bilera antolatzen da ikasturte hasieran, eta ikasturtean zehar saioetan egiten denaren informazioa jasotzen dute.

Nola harremantzen da herriko elkarte eta eragileekin?

Kontseiluan lantzen diren gaien eta proposamenen garapenean herriko elkarteekin elkarlana bilatzen da.